

LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

2017ko EKAINAREN 1ean, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA

2017ko ekainaren 1an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, gaueko 20.30 orduetan, Aneli Urbieta Etxeberria Alkate andrearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ZINEGOTZIAK: Gotzon Jauregi Sarasola
 Cristian Ivo Sebastian Pizarro Jofre
 Ander Leon Nanclares
 Angel Serrano Martinez
 Aritz Sarria Saraqueta
 Felix Joaquin Asensio Robles

Bertan dago, egintzaz fede emateko Ane Gomez Urteaga Idazkari-kontuhartzailea.

...//...

Alkate-lehendakari andreak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

1. Ondoren adierazten den Udalbatzarretako akta onestu, hala bada/gokio/
Aprobación, si procede de la siguiente acta Plenaria:
 - 2017ko maiatzaren 11an egindako ohiko bilkura./ Sesión ordinaria de fecha 11 de mayo de 2017.
2. Alkatetza ebazpenen berri ematea/ Dación de cuenta de los decretos de Alcaldía.
3. Larraulgo Abeletxe baserriaren eranskinaren berrikuntza lanen legeztapena, J.M.C./Legalización de las obras realizadas en el anexo del Caserío Abeletxe de Larraul, J.M.C.
4. Ziurtapen eta zerbitzu enpresa-empresa de certificación y servicios, IZENPE, S.A.-k jaulkitako zerbitzu elektronikoa arautzeko hitzarmenaren onespina, hala bada/ Aprobación del acuerdo regulador de los servicios electrónicos expedidos por ziurtapen eta zerbitzu empresa-empresa de certificación y servicios, IZENPE, S.A.
5. Fakturak eta ordainketak/ Pagos y facturas.
6. Beste batzuk/Otros.
7. Erregu, galderak eta mozioak/Mociones, ruegos y preguntas.


...//...

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN AIPATZEN DEN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADA.

- ☐ 2017 urteko maiatzaren 11ko Udalbatzaren ohiko akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onesten dute.

BIGARREN PUNTUA



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Alkate andreak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

10/2017 Alkatetza Ebazpena, maiatzaren 30ekoa, Maderas Garmendiari, egurrak garraiatzeko, baimena ematea herriko hainbat herri bide erabiltzeko, ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

HIRUGARREN PUNTUA

LARRAULGO ABELETXE BASERRIAREN ERANSKINAREN BERRIKUNTZA LANEN LEGEZTAPENA, J.M.C

Ikusirik J.M.C. jaunak eginiko eskaera, non Larraulgo Abeletxe baserriaren eranskinaren berrikuntza lanak legeztatzeko baimena eskaera egin duen. Horretarako Kele Lasa arkitektoak sinaturiko memoria, aurrekontu eta pleno batzuk aurkezten ditu.

Ikusirik 2017ko maiatzaren 30ean, Udal Aholkulari Teknikoak eginiko txostenean diona:

“LARRAULGO ABELETXE BASERRIAREN ERANSKINEAN EGINDAKO BERRIKUNTZA LANAK LEGEZTATZEKO TXOSTENA


*J.M.C. jaunak, Larraulgo “Abeletxe” baserriaren eranskinean egin diren berrikuntza lanak legeztatzea eskatzen du, Kele Lasa arkitektoak sinatutako memoria, aurrekontu eta plano batzuk aurkezten dituelarik. Aurreko dokumentazioa ikusirik, **ZERA ADIERAZTEN DUT:***

Aurkeztutako dokumentazioaren arabera, ekialdeko terrazaren gainean 38,32m² ko abeltzaintza ustiakuntzarako eranskin bat egokitu da. Eranskina hormigoizko bloke, egur laminatuzko habe eta sandwich panelekin egin da. Fatxada raseatua eta zuriz pintatua dago eta teilatua gorria da. Lan hauen aurrekontua, 8.751,40€-koa da (BEZ-a gabe).

“Abeletxe” baserria, Larraulgo lur ez hiritargarriaren barruan kokatua dago, D.20 produkzio zonaldean bereziki. Larraulgo arau subsidiarioen arabera, eraikinak udal katalogazioa du. Hau honela izanik, Foru Aldundiko alde aurreko txostena ez da beharrezkoa izango.

Larraulgo Arau Subsidiarioen 64º artikulua arabera, lur ez hiritargarrian nekazaritzako ustiapenentzako instalazio eta eraikin osagarriak baimendu daitezke. Hauek arautzen dituen artikulua 69ª da.

Artículo 69-. Instalaciones y edificios complementarios a la explotación agraria.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

1.-Se considerarán entre ellas todas las construcciones de carácter fijo y estable destinadas directamente a usos de explotación agraria o a usos complementarios y auxiliares de los mismos -cuadras, establos, pajares, silos, edificaciones para la guarda de maquinaria agrícola, etc.- con excepción de los usos residenciales.

2.-Tales construcciones se realizarán preferentemente adosadas al edificio del caserío y con empleo de materiales y soluciones arquitectónicas que armonicen con el mismo.

.....

48º artikuluan eraikinen kanpo itxuraren baldintzak finkatzen dira, eta 66º artikuluan baserrien zaharberritzearenak.

Artículo 48.- Condiciones de tratamiento exterior de las edificaciones.

-Con carácter general se evitará la utilización de materiales cuyo color, textura y formas de acabado difieran ostensiblemente de los utilizados en las construcciones rurales tradicionales de la zona.

-Como material de fachada se utilizará el revoco pintado y la piedra, prohibiéndose expresamente las terminaciones de bloque de hormigón visto y de ladrillo caravista, aunque la utilización de este último material se admitirá siempre que no supere el 25% de la superficie de cada fachada.

-Como material de cubierta se utilizará preferentemente la teja cerámica, autorizándose la utilización de otros materiales de coloración y textura similares.

Gaur egungo baserrien eraberritze eta birgaitzeari buruzko 66º artikulua, eraikinaren funtzionaltasuna eta kanpo itxura hobetzearen ondoan dauden txabolak eta teilape zaharrak kentzea agintzen du.

Puntu hau bete ahal izateko, baserriaren ondoan dagoen perratokia eta sarrerako eranskina botatzea proposatzen da idatzian.


Beraz, eskarian azaltzen diren lanak Larraulgo araudiarekin bat datozenez, abeltzaintza eta ustiakuntza erabilerarako eranskina legezkatzea egokia dela informatzen dut. “

Ikusirik kreditu nahikoa aurreikusia dagoela.

Gaia aztertu ondoren, bertaratuek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DUTE:

LEHENA: J.M.C. jaunak eginiko obrak legezkatzeko baimena eskaera onestu, hau da, Larraulgo Abeletxe baserriaren eranskinean egindako berrikuntza lanak legezkatzeko baimena ematea. Baimen hau, Udal Aholkulari teknikoak eginiko txostenean jasotakoari



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

baldintzaturik egongo da, eta batez ere ondorengoari:

Baserriaren ondoan dagoen perratokia eta sarrerako eranskina bota egin beharko da.

BIGARRENA: Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri interesdunari ematea.

LAUGARREN PUNTUA

ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS, IZENPE, S.A.-K JAULKITAKO ZERBITZU ELEKTRONIKOAK ARAUTZEKO HITZARMENAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik Ziurtapen eta zerbitzu enpresa-empresa de certificación y servicios IZENPE, S.A.K.-k jaulkitako zerbitzu elektronikoak arautzeko hitzarmena.

Ikusirik aipaturiko hitzarmenaren xedea ondorengoa izango dela:

HIRUGARREN ALDEA Izenperekin lankidetzan arituko da identifikazio eta sinadurako bitarteko elektronikoak jaulkitzen, eta erregistro-erakundetzat jardungo du.

Erregistro-erakundetzat jarduteak berekin ekarriko du zeregin hauek egitea: erabiltzaileen nortasuna egiaztatzea, erregistro-erakundean jasotako inguruabarren ziurtagiriak egiaztatzea, eta igortzeko, ezeztatzeko/baliogabetzeko eta berritzeko eskaerak baliozkotu eta onartzea.

Ikusirik Larraulgo Udalak interesa azaltzen duela hitzarmen hau onesteko.

Gaia azterturik, Udalbatzak, aho-batez, ondorengoa,


ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA: Onartzea Ziurtapen eta zerbitzu enpresa-empresa de certificación y servicios IZENPE, S.A.K.-k jaulkitako zerbitzu elektronikoak arautzeko hitzarmena.

BIGARRENGOA: Alkate-Lehendakaria den Aneli Urbieta Etxeberria ahalmentzea aipaturiko hitzarmena sina dezan.

HIRUGARRENGOA: Erabaki honen berri ematea Ziurtapen eta zerbitzu enpresa-empresa de certificación y servicios, IZENPE, S.A.-ri.

BOSTGARREN PUNTUA



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Alkate-Lehendakari andreak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

TOLOMENDI	152,50
KIROLZER	64,85
SANIPLAST	35,04
BERTSOZALE	293,10
BELARMENDI	935,38
LOPETEGI	209,57
IMAZ	25,89
TOLOMENDI	152,50
BABESA SUZAI	652,14
CORREOS	0,32
MOVISTAR	18,19
MOVISTAR	131,73
MOVISTAR	71,46

Udalbatzarrak **ah**o batez hurrengoa,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **2.742,67** eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

SEIGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**

6.1. LARRAULGO MURGIL GURASO ELKARTEAK EGINIKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERA, IGERILEKUKO IKASTAROETARAKO

Ikusirik Larraulgo Murgil Guraso Elkarteak eginiko eskaera, non ondorengoa dioen:


“Larraulgo Udalak eta Guraso Elkarteak adostua dugunez, eskolako haurrek egiten duten igerilekuko ikastaroaren zati bat Udalak finantzatuko du: hain zuzen, kiroldegiko kostuaren erdia.

2016/2017 ikasturteari dagokionez, igeriketa ikastaroa Larraulgo eskolako 6 haurrek egin dute.

Kiroldegiko gastua 22,65€koa izan da umeko.

Sei ikasleei zegokien gastua 135,92€koa izan da, beraz.

Udalari gastu horren erdia dagokio ordaintzea: 67,92€ guztira.”



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larraulgo Murgil Guraso Elkarteari 67,92€ euro ordaintzea, 2016/2017 ikasturteko igerilekuko ikastaroaren gastua finantzatzen laguntzeko.

BIGARRENA: 67,92 eurotako gastua onestea.

ZAZPIGARREN PUNTUA **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

Ez dira aurkezten.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko 20.40 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA